



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA
ETXEBIZITZA SAILA
Ingurumen Sailburuordetza
Ingurumenaren Administrazioaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL Y VIVIENDA
Viceconsejería de Medio Ambiente
Dirección de Administración Ambiental

EBAZPENA, INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIARENA, 2017KO ABENDUAREN 27KOA, ZEINAREN BIDEZ ZEHAZTEN BAITA MUSKIZKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN INGURUMEN-AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMENA.

AURREKARIAK

2017ko urriaren 5an, Muskizko Udalak Muskizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (aurrerantzean HAPO) berrikuspena dela eta ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko eskaera osatu zuen. Berrikuspen hori Euskadiko Ingurumena Babesteko Lege Orokorrean (otsailaren 27ko 3/1998) eta Ingurumen Ebaluazioaren Legean (abenduaren 9ko 21/2013) araututako ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren esparruan gauzatu da.

Dagokion formularioa erabilita egindako eskaerarekin batera, HAPOren zirriborroa eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 18. artikuluan aipatzen den hasierako dokumentu estrategikoa ere aurkeztu ziren.

Jasotako eskaera bideratzeko, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak Planaren zirriborroari eta hasierako dokumentu estrategikoari buruzko kontsulta egin zien eragindako administrazio publikoei eta interesdunei, hilabeteko epean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren (planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenaren) 9. artikuluan ezarritako kontsulten tramitea betetzeko. Zehazki, honako erakunde hauei egin zitzaizen kontsulta:

- Euskal Herriko Itsasertz Mugapea. Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Nekazaritza Zuzendaritza. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Ingurumeneko Zuzendaritza. Biodibertsitatea eta Paisaia Zaintzeko Atala. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Zuzendaritza Nagusia.
- Ura. Uraren Euskal Agentzia.
- IHOBE

- Ekologistak Martxan Bizkaia.

Planaren zirriborroa eta hasierako dokumentu estrategikoa kontsultatutako erakundeen eskura jarri ziren bai Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzaren egoitzan bai Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Politika eta Etxebizitza Sailaren webgunean.

Ebazpen hau egin den egunera arte, hainbat txosten jaso dira, hala nola honako erakunde hauenak: Kultura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzarena, Kultura Ondarearen Zuzendaritzarena eta Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzarena (hirurak Eusko Jaurlaritzaren mendekoak), Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiarena eta Kultur Ondarearen Zuzendaritzarena, eta IHOBereana. Horiek denak espedientean jaso dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren helburua da ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketen planen ingurumen-ebaluazioa arautu behar duten oinarriak ezartzea, eta ingurumenaren babes-maila handia bermatzea, garapen jasangarri bat sustatzea helburu.

Halaber, Euskadiko Ingurumena Babesteko Lege Orokorren (otsailaren 27ko 3/1998) 42. artikulua arabera, ingurumen-eraginaren ebaluazioek egoki bermatu beharko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: hautabide egokienak hautatu ahal izateko, plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko eraginei buruzko azterketa, betiere, kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 6.1.a artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar zaie administrazio publiko batek erabakitako, onetsitako edo aldatutako plan eta programei, legezko xedapen batek eskatuz gero plan edo programa hori egitea eta onestea, baldin eta legez ingurumen-eraginaren ebaluazioa egin behar zaien proiektuek etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen badute eta gai jakin batzuei buruzkoak badira. Eta gai horietako bat hiri- eta landa-lurraldearen antolamendua da, hain zuzen ere.

Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 46.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, arauaren I. Eranskinaren A) atalean aurreikusitako ingurumen-eraginari buruzko baterako ebaluazioa egin behar da, ingurumen-ebaluazio estrategikoa gisa ulertua; hala izanda, plan horien artean daude berrikuspina egin behar zaien Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak, aurrerantzean HAPO.

Lehen aipatutako abenduaren 9ko 21/2013 Legeak ezartzen duenez, plan baten ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa hasteko, aldeztu aurreko tramite hau egin behar da: ingurumen-organoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztea, eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean. Arau horrek 18.1. artikuluan zehazten du zer dokumentu erantsi behar zaizkion tramitea hasteko eskaerari. 21/2013



Legeari aurka egiten ez dion guztian, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren (planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenaren) 8. artikulua hasierako dokumentuarekin batera eman behar den informazioaren zerranda zabaltzen eta osatzen du.

2017ko urriaren 5ean, Muskizko Udalak Muskizko HAPOren berrikuspena dela eta ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko eskaera egin zuen. Eskaerarekin batera Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek egindako dokumentazioa aztertu ondoren, egiaztatu da dokumentazio horren edukia bat datorrela abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 18.1 artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8.1 artikuluan eskatutakoarekin.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. eta 10. artikuluetan ezarritakoaren arabera, ingurumen-organoak, eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egin ondoren, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egingo du eta organo sustatzaileari helaraziko dio jasotako erantzunekin batera.

Eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko epea amaitu ondoren eta espedienteko dokumentazioa aztertu ostean, egiaztatu da ingurumen-erakundeak behar beste judizio-elementu dituela ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko.

Azkenik, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztearren, honako arau- eta erregelamendu-iturri hauek eta orokorrean onartzekoak diren iturri hauek hartu dira kontuan:

- 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskadiko Ingurumena Babestekoa.
- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programa.
- EAEko Garapen Iraunkorraren Ingurumen Estrategia (2002-2020).
- EAEko Biodibertsitate Estrategia 2030.
- Euskal Autonomia Erkidegoko 2020rako Geodibertsitate Estrategia.
- 2050erako Klima Aldaketaren EAEko Estrategia.
- Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritako garapen jasangarriko printzipioak (Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen du Dekretuak).
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.

Era berean, aintzat hartu dira abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruz jasotako eskakizunak, bai eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren I. eta II. eranskinetan erreferentziako dokumentuaren edukiari eta ingurumen-jasangarritasun txostenaren edukiari buruz hurrenez hurren jasotakoak ere.

Organo honek ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko eskumena dauka, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 77/2017 Dekretuak xedatutakoaren arabera.

Hauek guztiak aztertu dira: abenduaren 9ko 21/2013 Legea, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskadiko Ingurumena Babestekoa; urriaren 16ko 211/2012 Dekretua, Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatu beharreko gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Muskizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren ingurumen-azterketa estrategikoari buruzko irismen-dokumentua egitea, honela:

A. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpideak

Muskizko HAPOn berrikuspena justifikatzeko oinarriak dira indarreko plana onetsi zenetik igarotako denbora, eta hirigintzako plangintza ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren zehaztapenei egokitzeko beharrezana; hala, naturaren babesari, ingurumenari eta hirigintzari buruz sortutako legeriatik eratorritzen diren aldaketak hirigintzako plangintzan txertatuko dira.

Aurreko horren guztiaren ondorioz, Muskizko HAPOn berrikuspena egiteko orduan ingurumen-helburu estrategiko, printzipio eta jasangarritasun-irizpide hauek ezarriko dira:

1. Egungo belaunaldien beharrak ziurtatzen dituen garapena, etorkizuneko belaunaldiek beren beharrei aurre egiteko ahalmena arriskuan jarri gabe.

- Lurzoruaren okupazioa moteltzea, eta horretarako lehendik artifizializatuta dauden lurzoruen erabilera lehenestea, narriatutako espazioen biziberritzea eta berrerabilera bultzatzea, eta balio agrologiko eta natural handia duen lurzoria urbanizaziotik babestea.
- Pertsonen eta salgaien mugikortasun jasangarrirako hiri-ereduak bultzatzea.
- Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea irisgarritasuna sustatzeko asmoz, lurzoruaren erabileren plangintza integratuaren, mugikortasunaren, eta hiri-egitura dentso, trinko eta konplexuen bidez.
- Ingurumen-eraginak minimizatzea, jardueren ondorioak aurrez ebaluatuz.
- Landa-ingurumenaren jasangarritasuna bermatzea nekazaritzaren eta ingurumenaren arteko oreka zainduz eta bultzatuz.
- Lurraldeko energia, ura, hondakinak eta lurzoruak arduraz erabiltzen direla sustatzea.

2. Gure kapital naturala babestea, kontserbatzea eta leheneratzea, ekosistemek ematen dizkiguten zerbitzuak zainduz. Biodibertsitatearen galera geldiaraztea.

- Udalerriko biodibertsitatea babestea, horretarako biodibertsitatearen osagaiak modu jasangarrian erabiltzen direla zainduz, ingurumenaren baliabideen erabileratik ateratako etekinetan parte-hartze justua eta bidezkoa lortzeko.
- Kontserbazio-eskakizunak, erabilera jasangarria eta natura-ondarearen hobekuntza eta leheneratzea eta biodibertsitatea hirigintzako plangintzan integratzea, ingurumena babestea hirigintza-antolamenduaren gaitetik lehenesteko legezko printzipioa kontuan hartuta.
- Habitaten eta populazio biologikoen galera eta degradazioa gelditzea, eta horien kontserbazio-egoera hobetzea, lurralde erresiliente eta multifuntzional baterantz aurrera egiteko.
- Ondare geologikoaren kontserbazioa indartzea, eta, horretarako, ondare hori hirigintzako plangintzan eta ingurumena prebenitzeko prozeduretan txertatzea.
- Udalerriko paisaiak eta kultur ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- Saihestezin gisa ebaluatutako kapital naturalaren galerak konpentsatzea, eta konpentsazio horretarako beharrezkoak diren mekanismoak ezartzea.

3. Klima-aldaketaren eragina mugatzea.

- Intermodalitatea eta berotegi-efektuko gas-isurpen gutxiagoko garraiobideak bultzatzea.
- Klima-aldaketarekiko erresilientea, konpaktua eta erabilera mistokoa den hiri-egitura bultzatzea.

4. Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatzea

- Arrisku naturalak dituzten zoru urbanizazioa geldiaraztea (uholdeak, akuiferoen ahultasuna, erosioa).
- Osasunaren Mundu Erakundearen gomendioekin bat, airearen kalitatea ziurtatzea bai kanpoan bai barnean (zarata barne), eta zarata handiekiko esposizioa duen biztanleria murrizten dela bermatzea.
- Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, berme juridikoa eta eragileen eta lurzoruaren erabiltzaile potentzialen jarduera indartuz.

Azaldutakoa kontuan hartuta, ingurumen-azterketa estrategikoak era espezifikoa justifikatu beharko du HAPOk nola ezartzen dituen aurrez azaldutako ingurumen-helburuak eta nola laguntzen duen hirigintzako antolamenduak ingurumenari dakarzkion ondorio negatiboak gutxitzen.

B. Geografia-eremua eta ingurumen-arlo garrantzitsuak

HAPO aplikatzeko geografia-eremua Muskizko udal-mugartea izango da.



Lurralde-eremu horretan bereziki garrantzitsuak diren guneak daude, haien balio natural edo kultural bikainarengatik, edota bertan gaur egungo zein etorkizuneko gizakien osasunerako zein ingurumenerako hautematen diren arriskuengatik.

Aipatutako lehenengo guneen artean Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko Legea (abendua 13ko 42/2007) aplikatuz eratorritako ingurumena babesteko araubideren bat duten guneak daude. Lege hori natura kontserbatzeko eta ondare naturala eta biodibertsitatea babesteko alorrean oinarritzko legeria da.

Arau horren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzeko apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren babespean dago ES2130003 Barbadungo Itsasadarra Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE). Natura 2000 Sareko eremu horri aplikatu beharreko araudia, HAPOk aintzat hartu beharko duena, *urriaren 16ko 215/2012 Dekretuan, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak onartzekoan* agertzen dena da. Hain zuzen ere, Dekretu hori aldatu zuen *martxoaren 17ko 34/2015 Dekretuak, ingurune hidrikoari lotuta dauden Kontserbazio Bereziko Eremuetarako (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuetarako (BBE) arau orokorrak onartzen dituenak*. KBE horren muga zehatza, *urriaren 16ko 215/2012 Dekretuaren 3. dokumentuan* agertzen dena da, eta horixe jaso beharko da Muskizko HAPOn.

Horrez gain, udal-mugartearen eremuan ingurumen-balio nabarmenak dituzten eta katalogo eta inbentarioetan jasotzen diren beste gune batzuk daude; hona hemen katalogo eta inbentario horiek:

- EAEko hezeguneen lurralde-plan sektorialean (LPS) sartutako beste hezegune batzuk: Barbadungo itsasadarra, LPS horren II. multzoan dagoena, eta Petronorreko urmaelak, III. multzoan daudenak. Barbadungo itsasadarraren kasuan, eta Natura 2000 Sareko eremua den aldetik, arestian aipatu den araudiari kalterik egin gabe, hezeguneen lurralde-plan sektorialak hezegune horretarako ezarritako zonifikazioa eta erabileren erregulazioa aplikatuko dira. Petronorreko urmaelen kasuan, udal plangintzak zehaztuko ditu kudeaketarako beharrezkoak diren neurriak.
- EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatzeko lurralde-plan sektorialeko babes bereziko eremuak.
- EAEko Naturagune Garrantzitsuen Katalogo Irekian sartutako beste espazio batzuk eta Lurralde Antolamenduaren Gidallerroetako Interes Naturalistikoko Guneak: Pobeñako padurak eta Arena hondartza.
- Batasunaren intereseko habitatak dituzten eremuak (92/43/EE Zuzentarauaren I. eranskina), eta, bereziki, lehentasunezko habitatak, Natura 2000 Saretik kanpo.
- EAEko Basoen Inbentarioan jasotako baso naturalak eta erdinaturalak.
- Mehatxatutako flora edo faunako espezieen banaketarako interes berezia duten eremuak, Mehatxatutako Espezieen EAEko Katalogoan jasotakoak.
- EAEko paisaia berezi eta nabarmenen katalogoaren eta paisaien katalogo eta gidallerroen arabera paisaia-balioagatik katalogatutako inguruak.
- EAEko Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioan dagoeneko bildu diren guneak.

- Ingurumen eta Lurralde Politika sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduan ezarritako hegazti mehatxatuentzako beste gune interesgarri batzuk. Agindu horren bidez, arriskupean dauden hegazti-espezieen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehentasunezko eremuak mugatzen dira eta hegazti-faunaren babes-eremuak argitaratzen dira, non goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan ez elektrokutatzeke edo talka ez egiteko neurriak aplikatuko diren.

Natura 2000 Sarearen koherentzia ekologikoa eta konektagarritasuna hobetzeko, eremu horiek igarobide ekologikoekin eta lurreko nahiz itsasoko paisaiako eta eremuko elementuekin lotzen dira, migrazioarako, geografia-banaketarako eta fauna eta flora basatiko espezieen populazioen arteko aldaketa genetikorako funtsezkoak diren edo garrantzi handia duten elementuekin; hain zuzen ere, alderdi horiek ingurumen-azterketa estrategikoan aztertuko dira.

Era berean, ingurumen-eremu garrantzitsuak dira balio agrologiko handia duten lurzorua eta Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoan ezarritako Babestutako Eremuen Erregistroko beste eremu batzuk, arestian aipatutakoen artean sartuta ez daudenak, Muskizko udal-mugarrean (azaleko uren hartuneak, ingurumen intereseko ibai-tarteak eta bainu-eremuak), bai eta, bidezkoa bada, lurralde-plangintzaren (Bilbo Metropolitarraren Funtzio Arloaren Lurraldeko Plan Partziala) edo plangintza sektorialaren (EAEko Ibai eta Errekastoen Ertzak Antolatzeke Lurralde Plan Sektoriala) ondoriozko babes-araubideren bat duten naturaguneak.

Kultura-balio handia dutenen artean daude kultura-ondarearen zati direlako kalifikatuta edo inbentariatuta dauden eremuak edo ondasunak, bai eta ustezko arkeologia-eremuak ere.

Ingurumen-arrisku garrantzitsuak dituzten edo izan ditzaketen eremuen artean honako hauek aipatu ahal dira:

- Lehentasunezko Fluxu Eremuak eta urak hartzeko 10 eta 100 urteko errepikatze-denbora duten eremuak, baita 500 urteko errepikatze-denbora dutenak ere.

Planaren zirriborroaren arabera, hiri garapenaren xede diren esparru batzuk 100 urteko uraldien eraginpean daude; esparru horietako gehienak gaur egun Sistema Orokor gisa kalifikatutako eremuak dira, eta gutxi batzuk Bizitegirako Hiriguneak. Esparru horiek baldintza geotekniko aurkakoak dituzte uholdeengatik, istiltzeengatik, zama-gaitasunarengatik eta ezarguneengatik.

- Hiri-garapenaren xede diren bi esparru, Memerea eta Altamira, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen kokaleku inbentariatu baten eraginpean daude: Lorenza-Elosua-Altamira Meategia, 48071-00029 kodearekin. Horrenbestez, eremu horietan ekainaren 25eko 4/2015 Legean, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoan aurreikusita dagoena aplikatuko da.
- Atal horretan sartu behar dira, halaber, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoaren 20. artikuluan eta III. eranskinean definitutako eremu akustikoak.



HAPO berrikusteko, kontuan izan beharko dira aipatutako garrantzi desberdineko guneak, baita ingurune fisikoa zuzenean transformatzen duten jarduketak garatzeko horietatik eratorzen diren baldintzatzailleak ere. Horren haritik, udal plangintza da udalerrian ingurumen-arlo garrantzitsuak mugatzeaz eta Babes Bereziko kategorian txertatzeaz arduratzen den tresna. Mugatze horri ekiteko, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan ingurune fisikoari buruzko 6.8.1 gidalerroan jasotako irizpideak aplikatuko dira. Bestalde, ingurumen azterketak baloratu eta justifikatu beharko du Babes Bereziko kategoriaren mugatzea, azaldu diren irizpideen arabera.

C. Jardunak egiteko egokiak ez diren eremuak

Atal hau idazteko, gutxienez aurreko atalean aipatu diren ingurumen-arlo garrantzitsuak eta aplikatu beharreko araudietan arlo horietarako ezartzen diren mugaketak hartuko dira kontuan.

Aurrerapenaren-aurrekoan planteatutako garapen proposamenak kontuan hartuta, Planaren zirriborroaren arabera, garapenaren xede diren esparru batzuk 100 urteko uraldien eraginpean daude edo lehentasunezko fluxu-eremu batean kokatzen dira; esparru horietako gehienak gaur egun Sistema Orokor gisa kalifikatutako eremuak dira, eta gutxi batzuk Bizitegirako Hiriguneak. Azterketak aztertu eta justifikatu beharko du garapen horiek bateragarriak diren bai EAEko Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean bai 2015-2021 epealdiko Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoan urak har ditzakeen guneetarako ezarrita dagoenarekin.

Planak planteatzen dituen jarduketan garapena baldintzatu ahal duten beste alderdi batzuk dira kutsatutako lurzoruen presentziarekin lotutakoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 13/2012 Dekretua aplikatzearen ondoriozko mugaketekin zerikusia dutenak. Bi alderdi horiek azterketan jorratuko dira.

D. Aurretiazko kontsultetako erantzunen ingurumen-azterketa laburra.

Jarraian, ukitzen diren administrazio publiko eta pertsona interesdunei egindako kontsulten tramitean gaur arte jasotako txostenetako eduki garrantzitsuenen ingurumen-alderdiak laburbildu dira:

- Identifikatu eta zerrendatu dira natura-ondarean eragina duten irizpide jasangarriak, HAPOren berrikuspenak kontuan hartu behar dituen horiek.
- Natura-ondarearen gaineko eraginei dagokienez kontuan hartu beharreko alderdiak identifikatu dira. Horren haritik Barbadungo itsasadarra kontserbazio bereziko eremuari eta Planean jasotako eremuetan dauden EAEko hezeguneen lurralde-plan sektorialeko (LPS) hezeguneei buruz kontuan hartu behar diren zehaztapen batzuk egin dira.
- HAPOren berrikuspenean kontuan hartu behar diren natura-ondareko beste elementu batzuk Batasunaren intereseko habitatak dira, lehentasunezkoak zein ez, baita arriskuan dauden flora eta fauna espeziak ere. Kontuan hartu behar da, halaber,



Planaren xede den esparruan hegaztiak linea elektrikoen aurka babesteko gune batzuk daudela, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Agindu bidez ezarritakoak, eta gainera udalerrian lotura-interes ekologikoko elementuak daudela. Horrez gain, garrantzitsua da kontserbazio-balio handiko paisaiak (kostaldea) eta geologia intereseko lekuak daudela (Arenako hondartza eta duna, besteak beste), EAeko geologia-intereseko lekuen inbentarioaren arabera.

- Beste alderdi azpimarragarri bat baso-landaketek hartutako azalera handia da; batik batik pinuak eta eukaliptoak dira, kasu askotan onura publiko gisa katalogatutako mendietan, eta kontuan hartzekoak dira landaketa horien kudeaketatik eratorri ahal diren ingurumen-ondorioak. Ingurumen-arazoen artean, halaber, nabarmentzekoa da atmosferara gasak isurtzen dituzten industria-azpiegitura eta -jarduera garrantzitsuak daudela, eta horiek udalerriko airearen kalitatean eragina izan ahal dutela. Azkenik, espezie exotiko inbaditzaileen presentzia da udalerrian detektatzen den beste ingurumen-arazo bat. Alderdi horiek guztiak kontuan hartu beharko dira ingurumen-azterketa estrategikoan.
- Historian zehar kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituzten lurzatiak identifikatzen dira, eta horren ondorioak azaltzen dira.

E. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu behar diren funtsezko alderdien definizioa eta irismena

Ingurumen-azterketa estrategikoak Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legearen (abenduaren 9ko 21/2013) IV. eranskinean ezarritako edukia bildu beharko du, eta hori urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren (plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena) II. eranskinean jasotzen denarekin osatu beharko da.

Aurrekoarekin bat etorriz, garatzen diren atalek honako eskema metodologiko honi erantzun behar diote:

1. Edukia, helburuak eta beste plan eta programa batzuekiko harremanak.
2. Ingurumenaren gaur egungo egoera.
3. Ingurumenean gerta daitezkeen eragin esanguratsuak.
4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak.
5. Alternatibak aukeratzeko prozesua.
6. Ingurumena zaintzeko programa.
7. Laburpen ez-teknikoa.

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da ingurumen-azterketa estrategikoak, aurrerantzean azterketak, hurrengo alderdietan sakondu behar duela jarraian adierazten den zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

1. Edukia, helburuak eta beste plan eta programa batzuekiko harremanak

Azterketan HAPOn berrikuspenaren helburu nagusien laburpen txikia jasoko da. Halaber, HAPOn berrikuspenaren ondorioz planteatzen diren gai berriak deskribatuko ditu zehatz-mehatz azterketak, baldin eta ingurumenaren gainean ondorio kaltegarri nabarmenak izan



baditzakete. Era berean, HAPOn mugatutako esparruen plangintza xehatua egiteko aurreikusten diren jarduketak eta garapen-tresnak denboraren aldetik nola planifikatuko diren azalduko da.

Azterketak era espezifikoan justifikatu beharko du Ebazpen honetako Lehenengoa. A atalean jasotako ingurumena babesteko helburuak eta printzipio eta irizpide jasangarriak kontuan izan direla HAPOn berrikuspenean. Justifikazio hori bai arauetan bai HAPOn bertan ezarritako adierazle eta mugen erabileran oinarritutako da.

Bestalde, aztertu beharko dira HAPOn loturak bai hirigintzako antolamenduko beste tresna batzuekin bai HAPOk lotura izan dezaketen lurralde-planekin eta plan sektorialekin. Gutxienez, kontuan hartu beharko dira honako alderdi hauek:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG). Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aldatzea bizitegi-kuantifikazioari dagokionez, eta Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikustea.
- Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala.
- EAEko Hezeguneak Babestu eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala. Barbadungo Itsasadarra LPS horren II. multzoan jasotzen den hezegunea da. Beraz, lurzoru urbanizaezinetan erabilerak eta jarduerak kategorizatu eta erregulatzeko, hezegune horretarako LPSn jasotzen diren zehaztapenak kontuan hartuko dira. Halaber, LPS horren III. multzoan jasotzen diren hezeguneei dagokionez (Petronorreko urmaelak), kontuan hartuko dira LPS horrek III. multzoko hezeguneei buruz egiten dituen gomendioak.
- EAEko Kostaldea Babesteko eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala. Lurzoru urbanizaezinaren antolamenduan kontuan hartuko dira, bereziki, babeseko zonak eta ingurumena hobetzeko zonak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala. Lurzoru urbanizaezinaren antolamendua definitzerakoan kontuan hartuko dira LPS horrek ezartzen dituen gidalerroak eta araudia, bereziki balio agrologiko handiko lurzoruei eta erabilgarritasun publikoko mendiei dagokienez.
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala (isurialde kantauriarra).
- Bizkaiko Errepideen Lurralde Plan Sektoriala.
- Euskal Autonomia Erkidegoko eremuko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala.
- Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoruaren Sorkuntza Publikoaren Lurralde Plan Sektoriala.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2015-2021), bereziki urak har ditzakeen zonei lotutako zehaztapenak eta Babestutako Eremuen Erregistroa.

HAPOn helburu eta jarduketan eta esparruan eragina duten plan eta programen helburu eta zehaztapenen arteko koherentzia eta erlazioa zehaztuko dira.

Halaber, eremuari aplikatu beharreko gainerako planei dagokienez izan daitezkeen bigarren mailako ondorioak, ondorio metakorrek eta sinergikoak identifikatuko dira. Hemen



identifikatutako ondorioak, halakorik izanez gero, planaren eraginak identifikatu eta baloratzeko atalean ebaluatuko dira. Baterako helburuak lortzea izango da xedea, eta horrez gain, beste planen helburu eta jarduketa-ildoekiko gainjartze, gatazka edo bateraezintasunak ager daitezkeen kasuetan HAPOren jarduketarako alternatibak ebaluatzea.

2. Ingurumenaren gaur egungo egoera

Azterketak ingurumenaren gaur egungo egoeraren alderdi garrantzitsuak deskribatu beharko ditu, eragin nabarmenak jasan ditzaketen guneen ingurumen-ezaugarriak zehaztuz eta HAPOren berrikuspena egin ezean gune horiek izan dezaketen bilakaera azalduz, klima-aldaketa bera ere kontuan izanik.

Halaber, ingurumenarekin lotutako balizko edozein arazo garrantzitsu identifikatu behar da (tartean Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren txostenean azaltzen direnak: espezie exotiko inbaditzaileen presentzia, baso-landaketen azalera handiak, atmosferara gasak isurtzen dituzten eta udalerriko airearen kalitatean eragina izan dezaketen industria azpiegitura eta jarduera garrantzitsuak), bereziki Ebazpen honetako Lehenengoa.B atalean ingurumen aldetik nabarmentzat jotako edozein gunerekin lotutakoak.

Era berean, lurraldearen ingurumen-unitate homogeneousen definizio bat gauzatuko da horien paisaia-ezaugarrien eta baliabide naturalen azterketa integratutik abiatuta.

Lehen aipatutako ingurumen-alderdiak era kartografikoan adierazi beharko dira, hirigintzako antolamenduaren xede den esparruarekiko eskala proportzionatuan.

Ingurumenaren gaur egungo egoeraren deskribapena ingurumen-adierazleak erabilita bermatu beharko da; horretarako, EAEko 2015eko ingurumen-adierazleak¹ erabili ahalko dira, baita lurraldeari eta ingurumenari buruzko Eustatenak ere, eta Ebazpen honen Lehenengoa.A atalean adierazitako ingurumen-helburuen bilakaerari buruzko informazio garrantzitsua eman dezaketen beste batzuk.

Kontuan hartu beharko da gaur egungo egoeraren eta, bidezkoa izanez gero, HAPOren esparruaren azalera osoari dagozkion adierazle bätzuen arteko aldakuntza; hona hemen adierazle horiek:

- Hiri lurzoru, lurzoru urbanizagarri eta lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako azaleraren ehunekoa.
- Lurzoruaren artifizializazioa: azalera artifizializatua guztizko azalerarekiko.
- Komunikazio- eta garraio-azpiegiturretara bideratutako azaleraren ehunekoa.
- Hiri-erabilerako azalera (bizitegia, industrialera edo ekipamendua), 10 eta 100 urteko erreplikatzeko-denborarako uholde-arriskuko lurzoru gisa katalogatutako lurzoru kokatzen dena.
- Habitat naturalek, erdi-naturelek eta naturalduet hartzen duten azaleraren ehunekoa.
- Kalitatean edo kontserbazio-egoeran hobera egin duten habitat naturalen azalera.

¹ http://www.euskadi.eus/web01-s2ing/es/contenidos/estadistica/amb_ia_2015/es_def/index.shtml



- Baso autoktonoaren ehunekoa, guztizko baso-azalerarekin alderatuta.
- Babes bereziko kategorian sartutako azalera.
- Kutsatuta egon daitezkeen eta erabilera berrietarako berreskuratuta dauden lurzoruen azalera.

Azterketak aipatutako adierazleei buruzko datuak izan beharko ditu edo, halakorik ez badu, alderdi berdina adierazten dituzten beste adierazle batzuei buruzkoak, kasu bakoitzean datu zehatzak lortzeko izandako balizko zailtasunak justifikatuz. Era berean, azterketak proposatzen diren beste adierazle batzuei buruzko datuak izan beharko ditu; hala, erreferentziako ingurumen-egoera bat definituko da ingurumena zaintzeko programa aplikatzeko.

3. Ingurumenean gerta daitezkeen eragin esanguratsuak

Atal honetan ingurumenean eragin ditzakeen ondorio adierazgarriak aztertu beharko dira, honako alderdi hauek barnean hartuta: biodibertsitatea, biztanleria, gizakien osasuna, fauna, flora, lurra, ura, airea, kultura-ondarea (ondare historikoa barnean dela), klima-faktoreak, klima-aldaketan izan dezakeen eragina (bereziki, planari lotutako karbono-aztarnaren ebaluazio egokia), ondasun materialak, kultura-ondarea eta paisaia. Faktore horien arteko interakzioa ere kontuan izan behar da, eragindako ekosistemek eskaintutako ingurumen-zerbitzuak ere ebaluatuz. Eragin horiek barnean hartu behar dituzte zeharkako efektuak, metaketak, sinergiak, epe labur, ertain eta luzerako eraginak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterakoak, positiboak eta negatiboak.

HAPOnen berrikuspenetik eratorritako gai berriekin bat egin duten planeamendu-ekintzak identifikatuko dira. Bereziki arreta berezia jarriko zaie, azken buruan, hirigintza-garapen berriak, azpiegitura berriak edo ingurumenearen transformazio nabarmenak ekar ditzaketenei.

Aurrerapenaren aurrekoak egindako proposamenak kontuan hartuta, eragin esanguratsuak honako hauek izan daitezke: Memereako L esparruan dagoen *6510 Altitude txikiko sega-belardi pobreak* batasunaren intereseko habitata galtzea (indarrean dagoen planeamenduaren arabera bizitegirako hiri lurzorua da), eta Kotorrio errearen ertzen zona batzuk 100 urteko uraldien eraginpean egotea.

Aztertu beharreko beste eragin batzuk, HAPOnen xede den esparruaren kalitate akustikoko baldintzen ondoriozkoak dira. Urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoaren 23. artikuluan ezarrita dagoena kontuan hartuta, HAPOnen esparruaren zonakatze akustikoa egin beharko da, dekretu horren 20. artikuluan eta III. eranskinean definitutako eremu akustikoak kontuan hartuta, eta zonakatze hori erakusten duen plano txertatu beharko da hirigintzako dokumentuetan.

Bestalde, Planaren berrikuspenak, aurkeztu den aurrerapenaren aurrekoaren arabera, lehenago adierazi diren zona batzuen sailkapenaren aldaketek gain, hiri lurzorua finkatuta duten edo garapenerako plangintza jada onetsita duten esparru guztien antolamendu xehatua planteatzen du. Urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-



kutsadurari buruzkoaren 37. artikuluan azaltzen denari erreparatuz, espedienteari Eragin Akustikoari buruzko Ikerketa erantsi beharko zaio. Ikerketa horrek, etorkizunean hirigintzako garapena aurreikusita duten eremuak jasango duen eragin akustikoa aurreikusten duten zarata-mapak eta ebaluazio akustikoak barne hartu beharko ditu. Eragin akustikoari buruzko ikerketa horrek 37. artikuluan zehaztutako edukiak izan beharko ditu.

Halaber, eta urriaren 16ko 213/2012 Dekretu horren 39. artikulua arabera, *eremu horretarako edo haietarako diseinu-hautabideen azterlana egingo da (eraikuntza-partzelen kokaleku ezberdinak eta erabileren orientazioa zarata-fokuak aintzat hartuta), udaleko plangintza aplikagarriaren antolamendu xehatua onartu aurretiko pauso gisara. Etorkizuneko garapen horri lotutako planik badago, horien aurreikuspenak ere aintzat hartu beharko dira artikulu honetako ikerketa akustikoa egiteko orduan.*

Kutsatua egon daitezkeen lurzoruen presentziari dagokionez, lehenago adierazi denez, HAPOnen berrikuspenak esparru horietan lurzoruaren erabilera aldatzea aurreikusten du. Beraz, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 23.d artikulua arabera, ingurumen-organoak lurzoruaren kalitatearen deklarazioa egin beharko du; lege horren 31.4 artikulua arabera, deklarazio hori egin beharko da “[...] *lurzorua kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat dagoen edo egon den lursailaren edo lursailen antolamendu xehea jasotzen duten hirigintza-bitartekoak behin betiko onartu baino lehen, edo bitarteko horiek aldatu baino lehen, eta, ahal dela, prozedura horien hasierako faseetan.* Horrek ez dio kalterik egiten 31.4 artikulua horren bigarren paragrafoan ezarrita dagoenari.

Horrela identifikatutako ekintza bakoitzarentzat espero daitezkeen balizko ingurumen-ondorioak deskribatuko dira, hala behar denean, justifikatuz ez dela probablea izango ingurumen-ondorio kaltegarri zehatz bat izatea.

Korridore ekologikoen baldintzatzaile gainjarriari dagokionez, azterketak baloratu egin beharko du proposatutako erabilerak egokiak diren, lurraldearen lotura ekologikoa lortzeko, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko Legearen (abenduaren 13ko 42/2007) 3. artikuluan zehazten denez. Zehazki, lehenago zehaztutako biodibertsitatearako garrantzi handiena duten naturaguneen arteko lotura kontuan hartuko da.

4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak

Aurreko atalean identifikatutako ondorio garrantzitsu bakoitzerako horiek prebenitu, zuzendu edo, halakorik behar bada, konpentsatzeko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Ahal den heinean, garapen-tresna zehaztuko da eta bertan proposatutako neurrietako bakoitza ezarriko da.

Urak har ditzakeen eta 100 urteko uraldiaren eraginpean dauden zonetan eraikigintzako garapen eta sendotzearen xede diren hiri eremuei dagokienez, ur-ibilguen ingurunean jartzea proposatutako elementu orok bermatu beharko du EAEko Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzen Lurralde Plan Sektorialean eta Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoan (2015-2021) urak har ditzakeen eremuetarako ezarritakoa errespetatzen dela. Hartara, saihestu beharko da ibaien ertzen eta ibai-korridorearen aniztasun eta funtzionaltasun ekologiko eta paisajistikoan

laguntzen duten elementuen alterazioa eta artifizializazioa, eta ahal denean, lehengoratzea, biziberritzea eta hobetzea sustatuko da.

Orokorrean, garatu beharreko esparruak antolatzen diren jarduketak kontuan hartuta, garrantzitsutzat jotzen da udalerriko azpiegitura berdearen funtzionaltasuna ziurtatzea, bereziki gaur egun funtzionaltasun hori arriskuan dagoen zonetan.

Azkenik, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen-ebaluazioari buruzkoak eskatzen duenez, ingurumen-azterketa estrategikoak barnean hartuko ditu neurriak, klima-aldaketan izan dezaketen eragina arinduko dutenak eta hari egokitzea bideratuko dutenak. Xede horrekin, IHOBEk egindako gida metodologiko hauek erabili ahal dira erreferentzia gisa: *“Klima aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gidaliburua. Udalsarea 21 Koadernoia”* eta *“Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua Klima-aldaketa arintzeko eta Klima-aldaketara egokitzeko (IHOBE)”*.

5. Alternatibak aukeratzeko prozesua

Alternatibak hautatzeko prozesuaren laburpen arrazoitu bat txertatuko da, bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta ingurumen arlokoa eta Muskizko HAPOnen berrikuspenaren helburuekiko bat-etortzea eta proportzionaltasuna justifikatuko dituenak, batez ere ingurumen-helburuekin lotuta. Azterketa honetan ebaluazioa egiteko modua deskribatuko da, bai eta zailtasunak ere; esate baterako, eskatutako informazioa biltzean beharbada aurkitu diren gabezia teknikoak, edo ezagutza eta eskarmentu falta.

Ebaluazio horrek erreferentzia-esparru gisa izango du ingurumen-alderdi garrantzitsuen balizko bilakaera HAPOnen berrikuspenera aplikatzen ez bada (0 alternatiba), sakonean aztertuz indarrean dagoen planeamenduaren eta bere berrikuspenaren artean dauden aldeak. Garrantzi berezia emango zaie HAPOnen berrikuspenak zuzenean aplikatzen diren bestelako arauetan sartzen dituen aldaketei eta aldaketa horiek ingurumenaren ikuspuntutik dakartzaten aldaketei.

6. Ingurumena zaintzeko programa

Azterketak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du. Programa horretan, Muskizko HAPO aplikatzeak ekarriko dituen ondorioak gainbegiratzeko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Ingurumena zaintzeko programan adierazleak deskribatuko dira eta, behar izanez gero, ondorio garrantzitsuenen erreferentziako balioak, bai positiboak bai negatiboak.

Ingurumena zaintzeko programak Ebazpen honetako Lehenengoa.E.2 atala betetzeko azterketan proposatzen diren adierazleak jaso beharko ditu. Era berean, datuak kasu kasu zer periodikotasun eta metodologia erabilita jasoko diren azalduko duen proposamen zehatz bat ere jaso beharko du.

7. Laburpen ez-teknikoa



Azterketak aurreko epigrafeen arabera emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat izango du; jendeak oro har ulertzeko moduko informazio zehatza izango du, aztertutako alderdi guztiak landuko ditu, eta, era berean, informazio grafikoa izango du, dokumentu autoaskia eta azterketarekiko independentea izan dadin.

F. Natura 2000 Sarean izan ditzakeen ondorioak

Muskizko HAPOn aplikazio-eremuko gune babestuen artean dago ES2130003 Barbadungo Itsasadarra Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE). Muskizko HAPOn berrikuspenean, espazio horren gaineko eraginik izan dezakeen jarduketarik ez da aurreikusten.

Natura 2000 Sareko eremu hori, *eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak onartzeko urriaren 16ko 215/2012 Dekretuaren bidez izendatu zen KBE. Hain zuzen ere, Dekretu hori aldatu zuen martxoaren 17ko 34/2015 Dekretuak, ingurune hidrikoari lotuta dauden Kontserbazio Bereziko Eremuetarako (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuetarako (BBE) arau orokorrak onartzen dituenak. Lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioan, Natura 2000 Sareko espazio hori, hasierako dokumentu estrategikoak dioenez, baldintzatzaile gainjarri baten bidez babestuko da, baina dokumentu horrek ez du aurreikuspenik ezartzen lehenago aipatu diren dekretuetan jasotako gidalerro, erregulazio eta neurriei men egiteko beharizanari buruz, eta gai hori kontuan hartu beharko da ingurumen-azterketa estrategikoan nahiz HAPOn.*

Bestalde, HAPO tramitatzean espazio horretan ukipen nabarmena sor dezakeen proposamen bat egikaritzea erabakitzen bada, proposamen hori “behar bezala ebaluatuko da”, abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 46.4 ezarrita dagoenaren arabera, eta kasu horretan, azterketak barnean hartu beharko du abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 35.1.c artikuluan jasotzen den atal espezifikoa, Natura 2000 Sareko guneek jasan ditzaketan ondorioen ebaluazioari buruzkoa.

G. Jendaurreko informazioa eta kontsultak

Eragiten dien administrazio publiko eta interesdunentzako jendaurreko informaziorako eta kontsultarako epea gutxienez 45 egunekoa izango da. Gutxienez ebazpen honetan identifikatutako erakundeen iritzia jaso beharko du, hau da, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan ezarritakoaren arabera Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak kontsultatutako horiena.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 17. artikuluen arabera, gehienez ere hamabost hilabetekoa izango da azterketa eta arauaren 21. eta 22. artikuluetan aurreikusitako kontsultak egiteko eta informazio publikoaren prozedura betetzeko epea, irismeneko dokumentu honen erakunde sustatzaileari jakinarazten zaion egunetik aurrera.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. artikuluen arabera, azterketa kualifikazio profesional eta goi-mailako hezkuntzari buruzko arauen arabera behar besteko gaitasun teknikoa duten pertsonak egingo dute, eta Legearen eskakizunak betetzeko behar den



kalitatea izango du. Azterketaren egileak identifikatu behar dira, haien titulazioa eta, hala badagokio, lanbide arautua adierazita. Identifikazioak izena, abizenak eta identitate-dokumentu nazionalaren kodea edo helburu berberetarako balio duen beste dokumentu bat izango ditu. Gainera, amaiera-data eta pertsona horien sinadura jasoko dira. Horiek azterketaren edukien eta informazioaren fidagarritasunaren erantzule izango dira, administrazioak frogagarri gisa emandako datuak alde batera utzita.

H. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

1. Ingurumen-adierazpen estrategikoaren eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuek koherentzia egokia errespetatu beharko dute, bai haien artean baita aurretik aurkeztutakoenekin ere, halakorik bada, hartara erabakia hartu behar duten administrazio-organoen lana erraztuz eta ez eragotziz.
2. Arreta berezia jarri beharko da kasu bakoitzean dokumentu teknikoaren atalak haien artean erlazionatzea ahalbidetzen duten datuak adieraztean (esaterako, atal batean planeko ekintzak deskribatzen badira eta beste batean ekintza horiek eragindakoa ingurumen-eraginak, bi kasuetan ekintzak izen berarekin aipatu beharko dira).
3. Beharrezkoa bada, datuak zein iturritatik lortu diren adierazi behar da.
4. Dokumentazio grafikoa eta kartografikoa sartu beharko da, behar bezala georreferentziatuta, beharrezkoa den ataletan.
5. Plano guztiak kodearekin eta izenburuarekin identifikatu behar dira. Halaber, honako hauek adierazi beharko dira: irudikatutako datuak zuzen interpretatzeko behar diren azalpenak eta sinboloak; eskala grafikoa eta zenbakizkoa, inprimatzeko formatua adierazita; sinadura eta noiz egin den.
6. Jatorrizko eskalatik murriztutako planoak aurkeztuz gero, zuzendu egin beharko da planoan jatorrian adierazitako eskala, aurkeztutako planoan oinarritutako neurketek ez dezaten akatsik izan.
7. Testuetan zehar aipaturiko eranskin, irudi, plano edo argazki guztiak dokumentazioarekin batera aurkeztuko dira. Erreferentzia horiek dagokion elementua erraz aurkitzeko moduan egingo dira, argi eta garbi.
8. Informazio jakin bat dokumentuko atalen baten ongitze edo zuzentze gisa aurkeztekotan, eta aldi berean espedientean zuzendu nahi den atala mantentzen bada, informazio berriak adierazi beharko ditu ongitzearen edo zuzentzearen ondorioz jatorrizko dokumentuan ezeztatutako edo ordezkaturako jo beharrek kapituluak, orrialdeak, epigrafeak, atalak, paragrafoak, esaldiak, koadroak, irudiak, planoak eta abar. Aurreko informazioaren bat osatzen edo zuzentzen duen informazioak egoera horren berri eman beharko du hasieran. Eskaera bat zuzentzeko aipaturako jarraibideak betetzen ez badira, tramite gehigarri bat eska dezake kontraesankorrak edo inkongruenteak izan daitezkeen alderdiak argitzeko, horrek prozeduraren ebazpenean dakarren atzerapenarekin.



9. Ingurumen-adierazpen estrategikoaren eskaera IKS-eem sistemaren bidez aurkeztu beharko da, aplikatu behar diren eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailaren webgunean eskura daitezkeen fitxak eta formularioak erabilita, zehazki, helbide honetan: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-orokorra/es/contenidos/informacion/guia_iks/es_def/index.shtml
10. Dokumentu bat .pdf formatuan aurkezten denean, gehienez 30 MB izango ditu eta bilaketak egitea ahalbidetu beharko du. Luzera handiagoko dokumentuak zatitu egin behar dira sisteman txertatzeko.
11. Aurkeztutako dokumentazio guztiaren aurkibide oso bat txertatuko da, adierazitako ataletako bakoitza zein orrialdetan dagoen zehaztuta. Aurkibidea aurkeztean .pdf dokumentu baterako, adierazitako orrialde-zenbakia bat etorriko da orrialde hori topatzeko irakurketa programaren "Joan orrialde honetara" eremuan adierazi behar denarekin.
12. Dokumentu kartografikoak .pdf formatuan eta .shp formatuan entregatu beharko dira. IKS-eem sistemak .shp formatua onartzen ez badu, planoen joko bat aurkeztuko da formatu horretan, euskarri digitalean, eta hori ingurumen-erakundeari bidaliko zaio ohiko bideak erabiliz.
13. Organo sustatzaileak datuak igortzean datu pertsonalak babesteari buruzko araudia betetzen dela bermatu beharko du beti.

Bigarrena. Ebazpen hau Muskizko Udalari jakinaraztea.

Hirugarrena. Ebazpen hau Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 27a.



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

Ivan Pedreira Lanchas

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria
Director de Administración Ambiental